

Azpeitian, 2013ko ekainaren 13an

Lagun agurgarria,

Dakizuenetz, Azpeitiko egungo behar eta ahulezi nagusienei aurre egiteko Plan bat osatzen ari gara, **Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa**ren prozesuaren eremuan. Honen helburu nagusia gure udalerriko garapen eredu berri baten oinarriak finkatzea da, iraunkortasunaren aldeko apustua sendotuz.

Plan hau herritar, politikari eta udal teknikarien artean lantzen ari gara hasiera hasieratik. Bi aldiz bildu gara jada zuekin. Azkeneko bilera apirilean izan zen. Bertan, arlo soziala eta ekonomikoa jorratzen dituen diagnostikoaren laburpen bat azaldu genizuen, puntu esanguratsuenak azpimarratuz. Ondoren, zuen ustez Plan berriak barneratu beharko lituzkeen gaiak edo eremu zehatzak identifikatu zenituzten.

Planaren zirriborro bat jada osatu dugu zuek egindako ekarpenak kontuan edukiz. Plan honek 8 urteko epean garatu beharko diren ekintzak barneratzen ditu. Honen bitartez, gure udalerriko egoera ekonomiko larria arindu eta arazo sozialei irtenbide bat ematen saiatuko gara, iraunkortasunaren alde egiten duen eredu batean oinarrituz.

Oraingo honetan, lantzen ari garen Planaren zirriborria azaldu eta zuekin partekatu nahi dugu, zuen ekarpenak jasotzeko asmoz. Horretarako, datorren **ekainaren 19an**, arratsaldeko **7etan**, bilera berri bat ospatuko dugu.

Bilerak, gutxi gora behera, ordu t'erdi bateko iraupena izango du.

Aldez aurretik zure interesa eta parte hartzea eskertuz, agur bero bat,

Eneko Etxeberria
Alkatea